

# N-634 errepidea, gauez itxita

Foru Aldundiak errepide inguruetako zuhaitzak inausi eta mozten dihardu. Aste honetan N-634 errepideari egokitu zaio. Gaueko 22:00etatik 6:00etara itxiko dute Usurbilgo tartea eta, atzerape-  
nik ez bada, martxoaren 10ean amaituko dira mozketak. Hala jasoa dator Aldunditik igorri di-  
guten prentsa-ohar batean.

Egunez trafiko handia izaten denez, zuhaitzak inausi eta mozteko lanak gauez egingo dira, “zerbitzuko eta bide-segurtasuneko arrazoiak tarteko”. Martxoaren 6tik 7rako gauean hasi ziren eta “martxoaren 9tik 10erako gauean amaituko dira”. Errepidea asteburuan zehar garbi geratuko dela diote Aldundiako iturriek.

## Bertan bizi direnentzako oharra

Mozketa Atxegaldetik hasi eta Orioko Txankako biribilgunera bitartean izango da. Mozketa-  
ren muturrak mugitzeko aukera egongo dela diote, lanek aurrera egin ahala, moztutako errepide zatia ahalik eta gehien



Mozketa Atxegaldetik Orioko Txankako biribilgunera luzatuko da.

## ITXIERA EGUNAK

**Martxoaren 6tik 7rako gauean hasi zen mozketa eta “martxoaren 9tik 10erako gauean amaituko da”**

mugatzeko aldera.

Horrez gain, Foru Aldunditik ziurtatu dute eremu horretako bizilagunei pasatzen utziko dietela: “Gauero lan egiten den lan-punturaino joateko baimena emango zaie, baina adierazi behar da AP-8 errepidetik desbideratu behar dutela, baldin eta beren bizilekua hor-

tik harago badago”. Eskatzen duten larrialdi zerbitzuei ere bidea erraztuko dietela adierazi dute.

## Txikiardi eta Troia arteko lanen amaiera, atzerapenarekin

Otsailaren 28an amaitzeko auzoaren Txikiardi eta Troia arteko obra: errepidearen eta trenbidearen arteko horma sendotzeko lana. Aste honen hasieran, semaforo-sistemak bere horretan zirauren. Informazioa bildu asmoz, Foru Aldundiaren prentsa arduradunekin jarri ginen harremanetan baina ez dugu erantzunik jaso.

## Foru Aldundiak errenta aitortzeko datak iragarri ditu

Iazko errenta aitortzeko datak finkatu ditu Gipuzkoako Foru Aldundiak. Honako hauek dituzte:

■ Apirilak 3-ekainak 30: Autolikidazio proposamenak onartzea.

■ Apirilak 12-ekainak 30: Internet bidez aitortpenak aurkeztea.

■ Apirilak 13-ekainak 8 (epea luzatu daiteke ordu libreak egonez gero):

Errenta mekanizaturako hitzordua eskatzea.

■ Apirilak 17-ekainak 30: Errenta mekanizatuaren aitortpena aurkeztea.

## Informazio gehiago:

gipuzkoa.eus atarian.




Autolikidazio proposamenak onartzeko epea apirilaren 3an zabalduko da.

# Lanbide Eskolako ikasleak, Vex Robotics Competition-en

Usurbilgo Lanbide Eskolako ikasleak Bartzelonan izan dira asteburu honetan Vex Robotics Competition txapelketan lehiatzen. Era honetan, iaz hasi zuten Steam izeneko ibilbidean urrats berri bat eman dute.

Steam egitasmoaren bueltan bi talde ari dira aurten: lehen mailan hasi berri diren ikasleak eta jada bigarren urtea osatzen ari direnak. Azken hauek Lego Spike delakoaren oinarriak landu ondoren, Vex robotarekin aritu dira lanean. Emandako urratsak Vex Robotics Competition lehiaketan erakutsi ahal izan dute.

Bartzelonako Ingeniaritza



Argazkian, Bartzelonan izan den lan-taldea.

Eskolan antolatzen den lehiaketan, Euskadiko Lanbide Heziketako taldeen artean lehenak izan dira Zubietako eskolakoak. “Kualifikazio frogan

3. postua erdietsi zuten eta ondorengo binakako txapelketan, lehenak izan ziren Gironako talde batekin batera”, Lanbide Eskolatik aditzera eman dute-

nez.

## Taldeak

Hauxe Bartzelonan lehiatu izan den lan-taldea: Usurbilgo Gorka Arroyo eta Jon Arruti; Lasarte-Oriako Gurutz Balerdi, Amaia Gainza eta Ander Maestro eta Zumaiako Josefa Molina.

## Robotika arloko prestakuntza

Steam prestakuntza osagarria iaz eskaintzen hasi ziren Usurbilgo Lanbide Eskolan Innova't Educació enpresarekin elkarlanean. Robotika oinarri hartuta, matematika, fisika, ingeniari-tza, ordenagailu bidezko programazioa edota pentsamendu kritikoa lantzen dituzte.